

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko ekainaren 20a

\*



Bielorrusiatik etorri diren neska-mutilak, Miranda de Argako Kultur Etxean.

JAGOBA MANTEROLA

## Bielorrusiatik Nafarroara

■ Joan den ostiralaz geroztik, Bielorrusiako 82 haur eta hiru begirale daude Nafarroako hainbat herritan: Larragan, Berbintzanan, Añorben, Falcesen, Kaparrosen eta Miranda de Argan, alegia. Uztailaren 28ra bitartean geldituko dira gure herrialdean. Bielorrusiako Haurrentzako Laguntza Independentea elkartearen eskutik etorri dira neska-mutilak Nafarroara, hemen opor osasuntsuak pasatzera, Txernobilgo zentral nuklearraren ezteandaren ondorioak pairatu dituzten

haurrak baitira. Aurten errepikatu den ekimena 1994. urteko abuztuan jarri zen abian Larraga eta Miranda de Argan, eta azken herri horretako hainbat lagunek esan digutenez «oso pozgarria da». Uda Nafarroan pasatzera etorri diren neska-mutil bielorrusiarrak baino areago, etxean hartu dituzten gurasoen seme-alabak dira jada haien tizat. Eta Nafarren eta bielorrusiarren arteko harremana bikaina dela berehala igartzen da, herriko kaleetan denak elkarrekin ikustean. ■

### Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Gure zonaldean, dirudienez, inork ez du sexu heziketarik behar; inork ez du antisorgailuei buruzko informaziorik behar; desio ez den haurdunaldi baten aintzinean, inork ez du laguntzaren beharrik; arazo sexual bat izanda ere, inork ez du bideratzerik nahi; dudarik gabe, gizonetakoek ez dute sexu orientatibidearen beharrik; eta gainera, emakumeon sexualitatea ginekologiara bakarrik mugatzen da. Bai zera!

Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu baten bidez Emakumearentzako Laguntza Unitateak paratu nahi izateak kontraerrian franko dakartza. Eskual-

### Ongizate sexuala

detako Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentruak (COFES-ak) desagertuko lirateke eta haiekin batera sexu hezitzailearen papera ere bai. Orain arteko zerbitzuak jasotzeko Iruñerriaraino joan beharko dugu, baina hori bai, ginekologo bat etorriko omen da egunero. Ze ongi! Emakumea laguntzeko ginekologo bat bakarrik! Eta nork daki beti bera etorriko den!

Gainera gizonetakoek ez dute tokirik unitate berri horietan, a ze gibelera pausua. Eta hau gutti balitz, emakumeon sexualitatea sexu organuen errebisio eta haurdunaldien jarraipenera

mugatuko dute, sexualitatea eta ginekologia berdinduz.

Noiz ulertuko dugu sexualitatearen arloan ez dakigula dena, heziketa beharrezkoa dela jarrera atzerakoi eta uste faltsuei aurre egiteko, horrek arazo anitz konpontzen lagunduko digularik. Noiz izanen dugu pertsona sexuatuaren kontzientzia, eta hala garen neurrian noiz ulertuko dugu zerbitzu zabal bat behar dugula, gure sexualitatea ez baita bajina bat eta zakil bat bakarrik. Noiz ohartuko gara gure ongizatea jokoan dagoela, eta gure erraten dudanean, emakume eta gizonen ari naiz. X

\* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

**Zugarramurdi:** Zugarramurdiko lezeetako Akelarre bestaren barruan, hainbat talderen emanaldia entzuteko aukera izanen da bihar. Gaueko 11etan, hasteko, Yassa reggae taldeak joko du, eta, ondoren, FAS Gasteizko txalaparta ikuskizuna aurkeztuko dute. Goizaldeko 2etan Akelarrea hasiko da, eta, ondoren, dantzaldia egingen dute Kukumiku taldearekin. Zizkuitz txarangak, gainera, gau osoan alaituko ditu herriko bazterrak.

**Iruñea:** Donibane auzoko jaien barruan, Ehun kilo, Skalariak, PILT eta Dixebra taldeek kontzertua eskainiko dute bihar txoznetan, gaueko 9:30etatik aurrera.

**Tafalla:** Pablo Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur Santa Maria elizan, gaueko 9etatik aurrera eta Kultur Patronatuak antolatuta.

ANTZERKIA

**Fitero:** TEN-Pinpilinpauza antzerki taldeak *La canción del bandido* lana taularatuko du bihar, gaueko 10etatik aurrera. Lan bera datorren ostegunean Tafallan antzetzuko du, Kultur Etxean eta gaueko 10etan.

**Tafalla:** Antzerki Gauak zikloaren barruan, La Trova taldeak *Leciones musicológicas* taularatu du datorren asteazkenean, Kultur Etxean eta gaueko 10etan. Leku eta ordu berean, La Traperak konpainiak *Feliz acontecimiento* lana aurkeztuko du.

**Ororbia:** Udaberriko Biraren barruan, Nasu Antzerki Produktioak konpainiak *Sigue volando* lana taularatuko du bihar pilotalekuan, arratsaldeko 8etan.

ERAKUSKETAK

**Iruñea:** Feli Pattierren lanak ikusgai dira Jai Alai erretegiaren, uztailaren 3ra bitartean.

**Barañain:** Anfas aisialdi taldeko kideen zeramika lanak ikusgai dira Kultur Etxean, hilaren 27ra bitartean. Aretoa asteartetik ostiralera bitartean dago zabalik, eguerditik arratsaldeko 2ak arte.

ZINEMA

**Arre:** Udaberriko Biraren barruan, *Goldeneye* filmea botako dute plazan bihar, gaueko 9:30etatik aurrera.

LEHIAKETAK

**Iruñea:** Nafarroako Antzerki Eskolak Umeentzako Antzerki Testuen VI. Lehiaketa antolatu du. Hemezortzi urtetik gorakoek parte har dezakete. Egile bakoitzak argitaratu gabeko hiru testu aurkeztu ahal izanen ditu gehienez, gaztelaniaz edo euskaraz. Parte hartu nahi duenak Nafarroako Antzerki Eskolara (Iruñeko San Agustín, 5) bidali behar ditu lanak, abuztuaren lehen baino lehen.

nafar kronika


Kike Diez de Ultzurrun

Ramon Arozarenaren kezkak

**E**rauntsi berria oldartu zaio euskararen untxiari. Erauntsiegileetarikoa bat aski ezaguna zen eta oraiko honetan taxuzko erantzunak eman dizkiote. Min hartu duenez, harekin bat datozenek hasierako gaia bazterrean utzi, arrazoibideak alboratu eta indarkeria zein urkamentia aldarrikatzea leporatu diete hark idatzitako astakeriei buru eman dietenei. Bertzei indarkeriazale izatea bizkarreratu eta kitto, horixe baizik ez da haien arrazoa. Alde horretatik, gizalegeak agintzen dituen bide guztietatik landara agertu zaigu Ramon Arozarena Sanzberro jauna, euskaraz ja ere jakin gabe gauza izan omen baita euskarazko artikulu bat irakurri eta ondorioak ateratzeko. Santu irudia duen arizkundarrak ez du zuzen jokatu afera honetan, eta, horren ondorioz, aunitz jenderi muzindu zaio hari zerion zintzotasunaz zeukan ustea. Deus erran al du, behin ere, Barañaingo epaiaz?

Mintzatu al da sekula euskarazko ikasgelak zabaltzeko paratzen dituzten behaztopoen gainean? Zer iritzi dio Marino Zalba epailearen jokamoldeari? Zein da haren aburua Nafarroako euskaldunei buruz, estatistikak propio asmatutako maniki barren-hutsak al dira? Irunberriko gurasoen artean, hamarretik zortzi, amarruz engainatuta al dabilta seme-alabendako D ereduak eskatzerakoan? Kezkagarri al deritza Iruñeko Lanbide Heziketan euskara kentzeari? Arregura azalduko al du Markotegiren asmoez? Hiru urtekoen artean izan diren aurrematrikulazioko zenbakiek gogabetzen al dute? Beldur al da euskarazko lerroen hazkundera ikusita? Zer dio ETBren harpenaz? Eta elebitasunaz? Ea behingoz muinari heltzen dion, jende askok eskertuko baitio.

Erantzunik ematekotan hauta dezala EGUNKARIA, noski, ba baitira itzultzaile prestuak eta zintzoak.



asteko pertsonaiak



Pedro Miguel Etxenike  
Fisikari-matematikaria

■ Pedro Miguel Etxenike Iزابako fisikari-matematikariak Vianako Printzea -Nafarroako kultur sari nagusia-, jaso zuen asteartean Leireko monasterioan egin ekitaldi ofizialean. Nafarroako agintari nagusien aurrean izan zen eta saria Felipe Borboikoaren eskutik jaso ondoren, euskaraz, euskararen defentsa sutsua egin zuen zientzilaria izabarrak. Hark adierazi zuenez, «gaur egungo teknologiaren garapenak ekonomiaren osotasuna eragin du, eta horrek berarekin dakarke kulturaren berdintasunaren arriskuak». «Gure hizkuntzak kezkatzen nau -jarraitu zuen-, *lingua navarrorum* den horrek. Gurea diot, gurea baino ez delako, eta ez, aldiz, dugun guztia delako; galtzen badugu, beraz, denek galtzen dute, betiko». Pedro Miguel Etxenikek, bestalde, zientzilaria izanda kultur saria jasotzeaz pozik zegoela azaldu zuen.



Oleg Kisselev  
Eskubaloia jokalaria

■ Portland-San Antonio Nafarroako eskubaloia taldeak 1997-98ko denboraldirako Oleg Kisselev errusiarrak fitxatu du, Oscar Mainerrekin batera. Errusiarrak bi metro ditu, 107 kilo pisatzen ditu eta 200 alditik goiti izan da internacional SESB ohiko eta Errusiako selekzioekin. Txapeldun olimpikoa, mundukoa eta Europakoa izan da. 30 urte ditu, eta Caja Cantabriatik dator San Antoniora. Zentrala oso gustura azaldu da Nafarroako taldearekin fitxatzeagatik. «Taldea handia da. Kalitate handiko jokalariek ditugu, eta talde lehiakorra izango da San Antoniora heldu den denboraldian. Zalantzarik gabe, Europa da gure helburua», esan du. Oscar Mainer, bestalde, Cadagialdarrak dator.

ahaztu gabe!



SAHATS  
EUSKALTEGIAREN  
URTEURRENA

**Barañain:** IKako Sahats euskaltegiak 20. urteurrena betetzen du aurten, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu ikasturte osoan. Ospakizunei bihar emanen diete amaiera euskaltegi kideek, horretarako prestatu hainbat ekitaldiren bidez. Goizeko 10:00etan, hasteko, futbito txapelketa egingen dute kiroldegian, eta, ondoren, eguerdikoko 12:30etan, aurten hamargarren urteurrena ospatzen duen Harizti dantza taldeak bere ikusizuna aurkeztuko du. Ordu erdi beranduago, halaber, euskaltegiari hasi eta herrian barna kalejira egingen dute, herriko txistulari, gaitari eta trikitilarien laguntzaz. Bertsolariek ere parte hartuko dute, bidea haien bertsoekin alaituz eta girotuz. Azkenik, arratsaldeko 2:30etan, herri bazkaria egingen dute Barañaingo institutuko pilotalekuan. Gaur egungo euskaltegi ikasle era irakasleek ezezik, ikasle eta irakasle ohiek ere parte hartu ahal izanen dute, bai eta herriko euskaldunek eta Sahats euskaltegia sortu zenetik igaro diren 20 urteotan IKako zentroarekin nola baitaiteko harremana izan duten guztiek ere.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Iratik Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* hau-  
rentzako saioa 12.30etan.

## Caseda

## Ekialdean Euskaraz Eperraren alde


Mauleko ikastola laguntzeko besta eguna antolatu du Ekialde Koordinakundeak

**E**kialde Koordinakundeak antolatuta, Ekialdean Euskaraz ospatuko dute bihar Casedan. Inguru horretan euskarari beste bultzada bat eman nahi dio biharko besta egunak, eta, bide batez, Mauleko Eperra ikastola diruz lagundu. Horretarako, egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek. Goizeko 09:00etan hasiko dira eguneko ekitaldiak.

Edurne Elizondo / Iruñea

EKIALDEAN EUSKARAZ bihar ospatuko bada ere, Koordinakundeak antolatutako ekitaldiak gaur hasiko dira, Jose Maria Jimeno Juriok *Nafarroa. Euskararen historia* bere azken liburua aurkeztuko baitu arratsaldeko 20:00etan. Bihar, musika bandaren eta gaiteroen dianek emanen diote hasiera Ekialdean Euskaraz egunari. Eta goizeko 11:00etan San Pedro mendian oroitarrria jarriko dute, biharko besta egunaren lekuko. Ondoren, eguerdian, Caseda, Zangoza, Ilunberri eta Oibarko erraldioen konpartsak bilduko dira herrian, eta arratsaldeko 14:00etan herri poteoa hasiko da, trikitilarien laguntzaz. 14:30etan, berriz, herri bazkaria egingen dute plazan.

Bazkalostean, Ekialde Koordinakundeak kideen omenaldia jasoko dute Casedako hainbat lagunek. Rafael Blanco antolatzaileak biharko ekitaldien aurkezpenean esan zuenez, «hainbat garaitan herrian euskararen



Eperra ikastolaren alde ospatuko dute bihar Ekialdean Euskaraz Casedan.

erreferentzia izan zen jendea ekarri nahi izan dugu gogora». Hauexek jasoko dute omenaldia: Andres Muruzabalek, XVII. mendeko herriko apezak; Dolores Urrutiak, Espainiako Gerra Zibilaren aurretik EAJren inguruan herrian sortu zen mugimendu euskaltzaleko partaideak; Higinio Oizak, gerra ondoko euskaldunberriak; eta Josetxo Santacarak, AEK-ko kideak. Omenaldiarekin batera kantaldia egingen dute Casedan, eta Mikel Markez, Bittor Aiape, Magi Ohienart, Fabian eta Mila, Ana Aguas, Dominika Larraki eta Robert Larran-

daburu, Kaxiano eta Mixel Arotzek hartuko dute parte, bai eta «Eperra ikastola berriko dantzari zaharrek», Itxaro Borda ikastolako lehendakariak erran zuenez. Azaldu zuenez, ikastolako gurasoek osatzen dute taldea eta maskaradan dira trebatuak.

Itxaro Borda hagitz kontent ageri da Casedatik Eperrari eskani dioten elkartasuna dela eta, biharkoa ez baita haren alde herrian egingen duten lehenengo besta. Biharkoak, hala ere, «bihotza jo» diola aitortu zuen idazleak bestaren aurkezpenean. Eperra ikastolaren egoitza be-

rrari buruz ere eman zuen hainbat xehetasun, hala nola irailaren 2an zabalduko dituela ateak, 70 ikaslerekin. Eta hori ospatzeko hiru besta egun egingen dituzte urrian. Hilaren 24an, hasteko, Benito Lertxundiren emanaldia izanen da, 25ean rock kontzertua eta 26an, azkenik, herri bazkaria. Casedako jaia ez da Eperraren aldeko bakarra izanen, gauza bera egingen baitute uztailen Pasaian, eta ondoren Arrasaten.

Eperraren aldeko konpaktua hil amaieran aterako dela jakinarazi zuen Itxaro Bordak, *Hama-hiru (t) alde* izenekoa, alegia. X

## Uharte

OSKAR MONTERO

## Larreko saria jaso zuen Cortes Izalek

Euskalerria Irratiak 425 lagunetik goiti bildu zituen joan den ostiralean Uharteko Toki Alai pilotalekuan, Larreko saria Jorge Cortes Izale emateko afarian. Otsagiarrak ikastolak bultzatzeko egindako lana eskertu nahi izan du Euskalerria Irratiak sari horren bidez. Cortes Izalek gauerdirako hamabost minutu falta zirenean jaso zuen Larreko sariaren adierazgarri den makila Javier Cunchillosen eskutik, Josema Leitza eta Oskar Estangaren ahotik hainbat bertso entzun eta gero. Ondoren, aureskua dantzatu zioten. Josu Zabala *Basajaun* ere gogoan izan zuten ostiraleko afarian, eta Euskalerria Irratiko kideek lore sorta eman zioten haren sendiari. Afaria bukatuta, dantzaldiari eman zioten hasiera. Jarauta 69 taldeak alaitu zuen lehenik giroa, eta Trikizio taldeak gero.



## Iruñea

'Inkarie' berritua kalean da joan den asteaz geroztik

■ Laugarren zenbakia atera du NUPeko euskara taldeak

Edurne Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO Unibertsitate Publikoko (NUP) *Inkarie* euskal aldizkariaren laugarren zenbakia kalean da, joan den asteo ostegunaz geroztik. Aurreko zenbakiekin alderatuz gero, laugarrenak hainbat berrikuntza duela konturatuko dira irakurleak, itxuraz ezberdina baita. Euskara Taldeko kideek, hain zuzen, bizitasuna eta arintasuna eman nahi izan diote *Inkarie* aldizkariari, eta, horren ondorioz, «grafikoago» bihurtu dute argitalpena.

Hirugarren zenbakian egin bezala, laugarrenean ere gai monografikoa aukeratu dute aldizkariako arduradunek: drogak, alegia. Aurreko zenbakian sexua jorratu zuten. Datozen zenbakietarako, berriz, gaitzat beldurra eta Nafarroa Beherea hartzea aztertzen ari dira.

Elementu berri horien bidez —gai monografikoa eta itxura arinagoa—, NUPeko euskaldunen arreta erakarri nahi dute *Inkarie* aldizkariako arduradunek. «Askok esan digute hasierako zenbakiak irakurtzea zaila zela, ez baitzegoen artikuluaren arteko inolako loturarik. Horregatik erabaki dugu zenbaki bakoitzean gai zehatza jorratzea eta artikuluak gai horren inguruan egituratzea», azaldu digu Ritxard Tanko Euskara Taldeko kideak. Dena den, hasieratik izan den hainbat ardatz ez da desagertu, eta euskalkien gaia, adibidez, hasieran bezain garrantzitsua da *Inkarie* berrituan ere. Atal horretan berrikuntzak egin dituzte, gainera. «Askorentzat zaila zen hainbat euskalkitan idatzitako testuak irakurtzea, eta, beraz, hitzik zailenak batuan ere idatzi ditugu», esan du Gorka Ovejero taldekideak. Eta etorkizunari begira, euskalkiak jasoko dituzten zintak grabatu eta banatzeko asmoa dute.

Ez da hori, hala ere, datoren ikasturtera begira *Inkarie* aldizkariako arduradunek duten asmo bakarra, argitalpen horrekin batera gai zehatzagoak jorratu eta informazio puntualagoa eskaintzeko *Inkarie* informatzen orrialdeak banatzeko proiektua lantzen ari baitira. Ikasturte hasieran, adibidez, NUPeko langile euskaldun guztien zerrenda argitaratu nahi dute Euskara Taldeko kideek. 1995. urteko maiatzean sortu *Inkarie*, beraz, zenbakitik zenbakira hobetzen saiatu dira NUPeko ikasleak, ikasle euskaldunei —unibertsitateko % 15— ahalik eta produktu erakarri eta atseginena helarazteko asmoz. X

Bielorru-siarren opor osasuntsuak  
Nafarroan

# Opor osasuntsuak Txernobildik urrun

Bielorru-siako 82 haur eta hiru begirale Nafarroako hainbat herritan dira egunotan, uztailera bitarte

Edurne Elizondo / Miranda de Arga

ILE HORIAK eta begi urdin eta berdeak. Ederrak dira gero Bielorrusiako neska-mutilak, bai behintzat Miranda de Argan uztailaren 28ra bitartean egonen direnak. Astearte arratsaldean gogor jotzen zuen hainbat herrian, baina bielorrusiarrei bost axola, galtza motzak jantzita eta jertsea soinean hartu gabe baitzebiltzan kalean. Talde zaratatsua osatzen zuten, alde batetik bestera korrika, oinez edo bizikletaz. Motorrak ere gustuko dituzte, Concha Andionek esan zigunez. Ez omen dira deusen beldur. Batez ere aurtur hirugarren aldiz etorri direnak. Miranda de Argako herritar bilakatu dira jada.

Sergey Ermolenkori, adibidez, jada ahaztu egin zaio iaz bizikleta gainetik erori zenean hartu zuen kolpea, elizako plazatik Herriko Etxeraino doan aldapa ziztu bizian jaitsi baitzuen, elkarrizketa amaituta Kultur Etxeko egoitzatik atera ginenean. Hutsean gelditu ziren Tere Garciak mutilari esandakoak. Haurrak, finean, edonon dira haur, are gehiago etxetik eta gurasoen begiradapetik at daudenean.

Miranda de Argan, hala ere, bigarren ama eta bigarren aita aurkitu dituzte Bielorrusiako neska-mutilak, eta «nire» eta «gure» dira haurrak hartu dituzten familietako kideek gehien erabiltzen dituzten hitzak: «Hango neska da nirea», «gurearekin oso pozik gaude», «nirea hirugarren aldiz etorri da», «Gure seme-alaba bilakatu dira jada», aitortu zigun Milagros Catalanek, eta harekin batera Kultur Etxean gurekin bildu ziren gainontzeko emakumeek bat egin zuten Catalanek esandakoarekin.

Miranda de Argara —bai eta Larragara ere— 1994. urteko abuztuan ailegatu ziren Bielorrusiako neska-mutilak lehen aldiz. Maria Pilar Autorrek kontatu digu nafarren eta bielorrusiarren arteko harremana nola sortu zen: «Moskuko aireportuan nintzen senarrarekin, eta han Madrilerantz zihoan haur talde batekin egin genuen topo. Askok hitz egin genuen eta Bielorrusiatik kanpo ematen zituzten oporren berri eman ziguten. Ideia oso ona iruditu zitzaigun, eta guk gauza bera egin erabaki genuen, bai eta hegazkin berean zihoan Larragako gizon batekin ere». Lau hilabete geroago, Miranda de Argan eta Larragan ziren bielorrusiarrek.


**Nafarroara indarberritzeko** • Hiru urte igaro ondoren, bielorrusiarrik gabeko uda ezinezkoa da Miranda de Argan, eta egunotan herrian diren neska-mutil asko-

**B**ielorrusiako hamabi eta hamabost urte bitarteko 82 haur eta hiru begirale Nafarroako hainbat herritan dira joan den ostiralaz geroztik. Zehazki, Larraga, Miranda de Arga, Falces, Berbintzana, Añorbe eta Kaparrosoko zenbait familiak hartu dituzte etxean, udako oporrek gure artean igarotzeko. Opor osasuntsuak izanen dira, Txernobilgo zentral nuklearraren ezta haur horien osasunean izan duen eragina arintzea baitu helburu bideak.




Aurreko urteetan bezala, pozik etorri dira neska-mutilak aurtur ere Nafarroara.

JAGOBA MANTEROLA



Hamahiru neska-mutil bildu dira Miranda de Argan. Alexandr (argazkikoa) da gaztelaniaz gehien hitz egiten duena.

JAGOBA MANTEROLA



rentzat ere ezinezkoak dira Miranda de Argarik gabeko oporrek Bielorrusian. Lehen urteko beldur guztiak bazter utzi dituzte, eta gurasoen falta berriro etxerako bidean direnean baino ez dute sumatzen. Miranda de Argara ailegatzeko autobusean ematen dituzten bi egunak ere ahaztu egin dituzte, neska-mutilak esan zigutenez «uste baino arinagoa» izan baitzen bidaia.

Miranda de Argatik haurren

bila joan ziren hainbat guraso, Frantzia, Belgika eta Polonia zeharkatuz, eta ostiralean itzuli ziren, oporrei hasiera emanez. Oraingoan, etxera itzultzeko egunari buruz hitzik ere ez dute entzun nahi bielorrusiarrek, herriko igerilekua baino ez dute buruan. Sergeirentzat, adibidez, Miranda de Argako eguraldi ona da oporren onena; Julia Tkatcheniarentzat, berriz, gurasoen kontrolpetik at egotea. Hori esan

eta barre egiten du neskatxak. Argazkilaria non dagoen galdetzen du gero, Oksana Kostinxkina begiraleak aipatu digunez «kameran aurrean baino ez baitu hitz egiten». Oksana eta Miranda de Argako emakumeekin solasean ari ginen bitartean, Kultur Etxeko alboko mahaian, jostailuen artean murgildu ziren bielorrusiarrek. Hitz egiten hasi ziren, gero eta ozenkiago, eta Nafarroan dituzten amek isiltzeko

esaten zieten bakoitzean irriz hasten ziren, algaraka. Are gehiago lerrookin batera erreportatua osatzen duten argazkien egilea haiengana hurbiltzen zen bakoitzean. Argazkilaria makinan Sergeiri eman zionean, ordea, haurren aurpegiak asko lasaitu ziren, eta lagun guztiei, Miranda de Argako emakumeei eta Oksanari hamaika argazki atera zizkien.

Kontent eta irrikaz ikustean, inork ez luke igarriko Txernobilgo hondamendiaren ondorioak pairatu dituztenik. Baina ez da ahaztu behar, Nafarroara etorri badira, Bielorrusian eman beharko duten neguari aurre egiteko indar berriak hartzeko izan dela. Eta etorri, Miranda de Argako familien eskutik ezezik, Bielorrusiako Haurrentzako Laguntza Independentea elkarteari esker etorri dira.

Zazpi eta hamabost urte bitarteko haurrekin egiten dute lan aipatu elkarteak osatzen duten boluntarioek, eta, Oksanak azaldu digunez, hiru ardatz ditu lan horrek: Txernobilgo haurrak batetik, haur gaixoak bestetik, eta laguntza behar duten familietako haurrak.

Txernobilgo haurrei dago-kienez, Bielorrusian zentral nuklearraren ezta haurren ondorioak pairatzen dituztenak asko eta asko direla azpimarratu du beste deus baino lehen, hau da, jende asko ukitzen duen gaia dela. «Zentro onkologikoetan dauden haurren kopurua bost edo zortzi aldiz biderkatu da», nabarmendu du. Haurrek pairatzen dituzten gaixotasunak, gainera, ugari direla azaldu digu Oksanak: «Arnasa aparatuko edo liseri aparatuko eritasunak dituzte, nerbio sistema kaltetuta dute, bai eta sistema immunologikoa ere...». Osasun arazo gehiegi oraindik hamabost urte bete ez dituzten neska-mutilentzat.

Arazo horien guztien eragina arintzea da, beraz, Bielorrusiatik kanpo neska-mutilok ematen dituzten oporren helburua. Eta Nafarroan ematen duten denbora oso luzea ez bada ere, Miranda de Argako haizea haurrentzat oso mesedegarria dela argi dago, Oksanak esan bezala: «Gurasoek esaten didatenez, adibidez, katarro gutxiago izaten dute kanpoan izan diren haurrek».

Alexandr Douboviken gurasoek ere hala esan diote Milagros Catalanen joan den neguan: «Escola itxi egin behar izan zuten haur guztiak gaixorik zirelako, baina Alexandr ez zen gaixotu». Alexandr hamalau urteko gaztetxo ile-horia da, baina haren begi berdeak dira jendearen arreta erakartzen dutenak. Bai eta ha-

Bielorrusiarren opor osasuntsuak  
Nafarroan

ren begiratu pikarora ere. Talde-kideen artean, gainera, Alexandr da gaztelaniaz hobekien hitz egiten duena. Gainontzekoek ederki ulertzen dute, baina hitz egiteko ausardiarik ez dute. Alexandrek bai, ordea, beste gehienak ez bezala oso gazte irekia baita. Irekia eta argia, gainera; Miranda de Argan ama duen Milagrosek Sanferminetara etortzeko aukera aipatu dionean, «kalimotxo, kalimotxo!» izan da esan duen lehenengo gauza.

Gazte altu eta indartsua da egun Alxendr, baina bielorrusiarrek Nafarroara etorri ziren lehen urtea gogoratzen duenean bestelako irudia etortzen zaio burura Milagros Catalani: «Asko nekatzen ziren haurrak, arnasestuka hasten ziren berehala. Gainera, oso haur urduriak dira, geldiezinak. Baina aurten oso ongi daude denak». «Jaz baino altuago etorri dira», gaineratu du Rosa Donazarrek, segituan.

Astebete baino ez daramate bielorrusiarrek Miranda de Argan, eta pozik dira. Uztailaren 28an, ordea, aurpegiak ez dira hain alai izanen. Beste urtebete emanen dute haurrek eta haien guraso nafarrek elkar ikusi gabe. Hemengo ama eta aitek, dena den, badakite etxera itzultzen direla neska-mutilak, gurasoen-



Neska-mutilak Oksana begiralearekin, udaletxe aurreko eskaileretan.

JAGOBA MANTEROLA

**Oksana Kostinxkina:**  
«Haurrak gaixorik daude,  
eta haurrak dira gure  
itxaropena. Zerbait egin  
behar dugu»

sian eta Europako ekialdean, eta arrastoak Frantzia eta Italiaraino iritsi ziren. Istripuak 30 hildakotik gora eragin zituen lehen batean, eta 1.800 hurrengo hamar urteotan. Erradioaktibitateak bost milioi lagun ingururi eragin zien Ukrainan.

«1986. urteko apirilaren 26a egun ederra izan zela dut gogoan. Bero handia egiten zuen, eta ikasturtea amaitzeaz zegoenez, haur guztiak kalean ziren. Istripu gertatu zenetik lau egun igaro ziren telebistan lehen berriak ematen hasi zirenera arte.

Zentraletik oso gertu bizi ziren nire senideek kontatu zidaten gauza arraro asko ikusi zutela: belarra gorria zen, ura txuria, eta gauak oso beroak, gorriak, hautsez betetakoak», gogoratu du Oksanak.

Istripu gertatu ondoko hiruz-

palau urteetan arazoari aurre egiteko inguru hartako gobernuak erakutsi zuten borondate eskasa salatu du begiraleak. «Orain hasi dira berriro horretaz hitz egiten, jende asko hil delako. Haurrak ere gaisorik daude, eta haurrak dira gure itxaropena».

## Errusiar eta sahararrak ere laster Nafarroan

■ *Bidaien antolatzaileen ustez, haurrentzat ona da uda etxetik kanpo ematea: «motibatu egiten dira»*

Edurne Elizondo / Iruñea

BIELORRUSIARRAK ez dira udako oporrak Nafarroako hainbat herritan pasatzera etorri diren atzerriko haur bakarrak. Astelehenean, hain zuzen, Errusiatik 24 neska-mutil ailegatuko dira Bartzelonara, eta handik Atarrabiara, herriko Atarrabia Solidario elkartearen eskutik. Atarrabiara, orain dela bi urteko Eguberrietan ailegatu ziren haur errusiarrek lehen aldiz. Elkarteko lehendakari Ana Mari Martinek azaldu digunez, «gure seme-alaben ikastetxean Eguberrietan Errusiako haurrak gure etxeetan hartzeko gutuna bidali ziguten, hainbat gurasok baietz esan zuten eta horrela etorri ziren».

Hamabost egunerako etorri ziren aldi hartan, eta hurrengo udan Atarrabian ziren berriro neska-mutil errusiarrek, eta han izanen dira berriz astelehenean. Etorriko diren haurretako hamabost aurretik egonak dira, eta gainontzekoek lehen aldiz bisitatuko dute Nafarroa. Arazoak

dituzten familien baitatik edo urmezurtz-etxetatik datoz guztiak.

Ana Mari Martinentzat esperientzia guztiz positiboa izan da Errusiako haur bat etxean hartzea, eta azpimarratu duenez, arazorik gabe integratu dira gehienak hemengo bizimoduan. «Haur urduriak dira, barnerkoiak, baina gure artean hilabete bat eman ondoren eroso sentitzen dira».

Haurrak Atarrabian pozik egoten direla argi du Ana Mari Martinek, baina bidaiak neska-mutilengan izan dezakeen eraginak kezkatzen du. «Hango eta hemengo gizartearen arteko kontrastea handia da. Eta guk ez diegu haurrei minik egin nahi». Bisiten ondotik Errusiatik Atarrabiara bidalitako txostenek, hain zuzen, Errusiatik kanpo emandako

denborak umeei on egiten diela nabarmentzen dute. «Esan ditudenez, eskolan hobeki ibiltzen dira, haurren osasunak ere hobera egiten du, eta itzultzeko ilusioak motibatu egiten ditu neska-mutilak».

Iritzi berekoa da Jose Luis Martinez, Zizur Bi Munduren Artean elkarteko kidea. Martinezek, hala ere, oso erralitate ezberdina bizi duten haurrekin egiten du lan, neska-mutil sahararrekin alegia. Aurreko urteetan bezala, uztaila eta abuztua Zizur Nagusian emanen dute aurten ere Tindoufeko kanpamenduetan (Aljeria) bizi diren 20 haurrek. Nafarroako beste zenbait herritan ere izanen dira, besteak beste Oibarren, Iluberrin eta Zangozan. Denetara, ehundik gora haur saharar izanen da aurtengo udan Nafarroan.

Jose Luis Martinezen ustez, Zizur Bi Munduren Artean elkarteko kide eta sikologo den aldetik, halako bidaiak oso mesedegarriak dira hona etortzen diren haurrentzat. Sahararren kasua berezia dela azpimarratzen du halaber: «Hona etortzen diren neska-mutilek oso ongi dakite zertara datozen, kausa baten mezulariak dira, eta duintasun handia dute».

Tindoufeko kanpamenduetan lauzpabost aldiz bisitatu dituen Begoña Errazti EAko parlamentarioak ere halako bidaiak haurrentzat onuragarriak direla uste du. Kanpamenduetan umeei bizi duten egoera gogorra ongi ezagutzen du, baina, nabarmendu duenez, «gizarte sahararrak oso ongi tratatzen ditu haurrak, bai eta agureak ere». Erraztiren ustez kanpamenduetatik kanpo egindako bidaien bidez beste erralitate bat erabat ezberdina ezagutzeko aukera ezezik, Aljerian ikasten duten gaztelania praktikatzeko, medikuarengana joateko eta hainbat gauza egiteko aukera ere badute haurrek. X

**Ana Mari Martin:** «Haur urduriak dira, barnerkoiak, baina gure artean hilabete bat eman ondoren eroso sentitzen dira»

## Gobernukoak beti motelagoak

■ Bai lagunak, horrelaxe dio usadio zaharreko atsotitz batek, eta kasu gehienetan gainera, gure zoritxarrerako, bete egiten da esaldi horretan adierazten dena.

Zergatik diodan hori guztia? Begira ezazue ba, berehalaxe kontatuko baitzuet zer gertatzen den Iruñea zahar honetan.

Berriz ere gai horrek zerikusia du oztopo arkitetniko eta urbanistikoen kontuarekin. Hara, salatuko naiz arina izaten, irakurleok gehiegi ez aspertzeko afera berdintsuekin.

Arazoa zera da, Nafarroan badago Foru Lege bat asuntu horiek guztiak erregulatzeko. Lege horrek, gainera, badu sailen arteko batzorde bat. Zertarako den batzorde hori? Ba, legeak dioena beteazteko, eta betetzen ez baldin bada, orduan legehausteak salatze edo bestela isunak eta zigorrak jartzeko errudunei.

Orduan Parlamentura joan behar izan genuen protestatzera elbarrien ordezkari batzuek. Geroago, berriz, hasi zen funtzionatzen, baina Gobernuaren hurrengo aldaketarekin iritsi zen beste etenaldi bat. Berritua ere hilabete batzuen buruan jarri zen mugimenduan, baina Javier Otano lehendakari ohiaren eskandalua zela-eta, berritua bertan behera gelditu zen haren zeregina, orain dela urte bat hain zuzen ere.

Harrezkerotik ez da berriz abiatu atzo arte; eta hau ez da izan hain ekimenari esker hain justu ere, baizik eta gutxitu fisikoen koordinakundetik orain dela hilabete bat, gutxi gora-behera, deitu genielako hitzordua eskatzeko. Hortaz, urtebete bat oso-osorik eman du Batzordeak bildu gabe. Kontu egin, Otanoren gora-beherak izanda ere, 1996ko irailaz geroztik ahalmena zuela batzorde ospetsu horrek bilera deitzeko.



Baina, ba al dakizue zein den kontua arlo horretan? Beno ba, egia esan, tamalez arazoa ez da bakarria, bikoitza baizik. Alde batetik, Legea ez da batera ongi betetzen bere osotasunean behinik behin, hau da, neurri txiki batean bai betetzen da zeozer, baina esparrurik handienetan ez, ordea; eta beste aldetik, zigor kodeak eta Sailarteko Batzordeak ez dute egiten beren lana behar bezala. Beraz, pixka bat laburtu eta argitzearen zera esan genezake: 1. — Legea ez dela osorik betetzen, ezta hurrik eman ere, eta 2. — Hala ere ez dela deus ere gertatzen; hau da, hutsak eta akatsak ez dira konpontzen, eta santziorik ere ez zaie jartzen legehausleei. Hori guztia dela eta, gutxitu fisikook ez gaude inola ere konforme batzorde horren martxarekin.

Orain Sailarteko Batzorde hori aztertuko bagenu pixka batez, segituan aitortu beharko genuke behin ere ez dela behar bezala ibili. Hasieran kostatu zitzaion abian jartzen, gero bi urteko geldialdia izan zuen Gobernu aldaketa zela medio.

Esan bezala, Batzordea atzo bildu zen lehen kontaktua izateko, baina gogoan hartuta Sanferminak eta uda gainean ditugula, berritua ere iraila edota urrira arte izanen da beste etenaldi bat; beraz, zer itxaron genezake horrelako batzordetarik? Deus handirik behinik behin ez, argi dago. Nabarmena da holako batzorde baten eraginkortasuna hutsaren hurrengo dela. Edozein pertsona asper dezake. Urrats bat egiten du aurrerantz eta hurrengo egin orduko eternitate igarotzen da, eta pozik atzerapausorik ematen ez badu behintzat.

Elbarrien Kolektibotik aspalditik esan zate Gobernuko partaideei Batzordeko kideek izan beharko luketela langile finkoak, independenteak, eta ez arduradun politikoak. Hartara, seguru asko, funtzionatuko luke, baina funtzionario-politikoekin behinik behin argi dago barearen abiduran baino ez doazela.

Hasieran esan dudana: «Gobernukoak beti mantsoagoak». ■

Joxemiel Bidador

## Nafar apologisten miresmena: Aurelio Karraskalen bihotzerrea (II)

■ Jose Kontxillos-Markina Ruiz-Laiar tuterar zintzoak bere hirari buruz egin izan den lehendabiziko historia ondu zuen, hau da, *Propugnáculo histórico y jurídico, muro literario y tutelar, Tudela ilustrada y defendida*, Zaragozako Juan Ibar baitan, 1666. urtean karrikaturik. Lanaren nondik-norakoa Jose Moreti ihardeste zetan, iruñarraren lan ospetsuan Tuterara Muskariarekin berdintzen zuelako, eta, gainera, Tubalen historia sinisten bazuen ere, ez zuen inondik inora onartu ere egiten hark Tuterara sortu zuenik, eta Tudela izenean, besterik gabe, Tutela ikusten zuen, Tubalari lekioketen Tubela beharrean. Kontxillosek liburu osoa honen deuseztatzeke tajutu zuen. Honen ostean, Moretek erantzuna argitaratu eman zuen, *El bodeque contra el propugnáculo histórico y jurídico del licenciado Cunchillos*. Izenik gabe agertu zuen, testuan agertzen diren hiru pertsonaien izenean ez bada, Favio, Silvio eta Marcelo alegia. Lana beharreko baimenik gabe agertu zen, eta hemen inprimatua bazen ere, Colonia Agripinako Severino Clariyrenean egina izan bailitz agertu zen 1667.ean. Ber urtean Kontxillosek erantzuna argitaratu zuen, baita ezizen eta inprimatoki faltsuen pean: Jorge Alceo de Torres, Tuterako semea, *Desagravios del propugnáculo de Tudela contra el trifauce Cerbero, autor del Bodeque*, Amberesko hirian. Moreten erantzuna ez zen gehiago luzatuko, eta erret-agindua lortu zuen Kontxillosek bigarren liburua galeratzeko. Jaso ale guztiak erre ziren, eta egun zaila da eskuratzeko. Alabaina, bien arteko aharrak ez zen berria, eta elkar ezagutzen zuten Moretek bidali zion anonimo bati esker, *Propugnáculo-aren 137 orrialdean agertzen denez: «Estando imprimiéndose este tratado, llegó a mis manos un papel sin firma, en que por parte del autor de las investigaciones antiguas de el reyno de Navarra, procura dar satisfacción de lo que escribió en su libro contra la ciudad de Tudela, y persuadir no se saque a la luz el defensorio de la dicha ciudad»*. Kontxillosek Tuterako zioarekin egin zuen ber moduan, Arbizuko jau-regidun alkoaren Frantzisko Eraso izan genuen Tafallako defendatzaile, izan ere, Cordobako apezpikute giko bisitatzalea eta hango eliz nagusiko kanonigoa izan zen huraxek Tafallako fundazioa, Tubala, Tubal mitikoari egotzi zion bere *Discursos históricos sobre la población de España* liburuan XVII. mende-bukaeran.

XVIII. mendean egile ezaguna daukagu gure zerrindaren osagarri. Aunitzetan mintzo da Juan Perotxegiz, eta guzietan, zinez, urri. Arestian EGUNKARIAK argitaratu atera euskarazko entziklopedian Nafar sendiko soldadu lapurtar aurkezten zaigu, Ainhoakoa hain zuzen ere, ez dakigu ordea informazioa nondik hartua den. Beste nonbaiten berriz Garestarra dakarkigute. Berak 'theniente provincial de artillería y comandante del reino de Navarra' besterik gabe aurkezten digu bere burua. Edozein modutan ere arras ezaguna eta zabaldua izan da bere lana, Bartzelonan 1731.ean estrainekoz agertu zena: *Origen de la nación bascongada y de su lengua de que han dimanado las monarquías española y francesa y la república de Venecia que existen en el presente*. Bigarren edizioa Iruñean ageri zen, Martinezen etxean 1760.ean, Azanzako Migel Bonifazioa anaiak xedatu onarpenarekin. Eman zizkigun etimologiak asal-dagarriak dituzkegu oso: «Escuara viene de asco gara, bayascogara», eta ahalegindu zen Europako hamaika toponimo euskararen bitartez azaltzen, berak bisitatu lekuenak bederen: Espainia, Frantzia, Italia, Grezia, Asiako Hiberia, Alemania, Noruega, eta Ipar Amerika. Tesi tubalista gogotik defendatzen zuen honek ezpal bereko gainontzeko testuetan kausitu ezin daitekeena agertu zuen, hau da, euskaraz eginko testurik, nahiz arras ilaburak diren. Hona hemen adibide bi, bata hilarri baten epitafioa: «Aife dago emen datzana / Nor bere echean den bezala / Aifeago Ceruan dagoena / Baliz bezala Jefufen Itzala», eta bestalde noblezia zer den zehazteko definizioa: «Ohore handía da Equizaiqui / Aita honetarik etortzea / baiñan Urruzen dira feguqui / diotenec hau dela afco izaitea / Nior es da Ceruan Sartuco / es ohore onerat helduco / nore here bere aldetic / ez badu arcan preftutafuna / eta hidalguiaren adertafuna / Jesus Eftiaren amoriotic».

Ez dugu gehiegirik luzatu nahi, eta ahitzeko aurreko mendeko historialari bakarria ekarriko dugu, Jose Nadal Gurreak *Glorias navarras: historia compendiosa del origen del antiguo reino de Navarra* idazkia Iruñeko Sixto Diaz Espadaren etxean inprimarazi zuen 1866.ean. Honek jada Tuterako sorrerarenaz zioenak egiantzik doi bat nabarmenagoa zeukakeen: «A pesar de todo lo que se ha escrito sobre la fundación de esta ciudad, nos inclinamos a creer que su origen es romano por su nombre Tutela. En la lengua de los árabes fue Tothila, Todela y Tudela». Honen ondoan, Nafarra hitzaren etorki arrotza proposatzen zuen: «En los tiempos más antiguos se conoció Navarra con el nombre de Vasconia. El pueblo que hacia la mitad del siglo VIII se conocía en Vasconia como navarro era originario de los godos, que en tiempo de Suintila y Wamba se establecieron en el país. Esta colonia a la entrada de los árabes era poderosa. Poco a poco fue oscureciendo el antiguo nombre de la tierra, y aunque por bastantes siglos duró esa rivalidad al cabo vinieron a mezclarse y confundirse en una sola nación de un mismo nombre».

Horago esan bezala, argi dago historialari nafar guzti hauen egiazkotasuna edota zientifikotasuna kolokan jartzeko dela. Ez zuten, beste batzuk duten bezala, euskal unibertsitate moderno eta serioa baten abaroan lan egiterik. Baina nafarrak ziren bezain batean, nafar hizkuntzari zioten maitasunean askoz ere aurreratuagoak zeuden egungo katedradunen batzuk baino, eta bistan denez, irakasle jaun hantu erretxin hauek asko ikas dezakete oraino klasiko zahar zoro amoltsu hatengandik. Ahal badute behinik behin. ■

# Kebenko, Erronkariko euskararen alde

Elkarte horrek antolatuta, Erronkariko Uskararen Eguna ospatuko dute bihar Uztarrozen, besta giroan

**K**ebenko taldeak antolatuta, Erronkariko Uskararen Eguna ospatuko dute bihar Uztarrozen. Besta horren bidez, bailaran euskarari beste bultzada bat eman nahi dio Kebenkok. Orain dela sei hilabete hasi zen elkarte horren ibilbidea, eta haurrentzako tailerrak eta gau-eskola antolatzea dira egun esku artean dituen proiektuak.

Edurne Elizondo / Iruñea



Erronkari bailarako Kebenko taldeko hainbat kide, elkartearen aurkezpena egin zutenean.

EGUNKARIA

EUSKARA mugitzen ari da Nafarroako ekialdean. Orain dela aste batzuk, hain zuzen, Euskararen Eguna ospatu zuten Zaraitzun, eta bihar, berriz, bi lekutan izanen dute euskaltzaleek euskararen aldeko ekitaldietan parte hartzeko aukera. Alde batetik, Casedan Ekialdean Euskaraz ospatuko dute; eta bestetik, Uztarrozen, Erronkariko Uskararen Eguna izanen da.

Uztarrozeko besta Kebenko -hemengo, Erronkariko euskaraz- taldearen eskutik ospatu ahal izanen dute bailarako biztanleek bihar, talde horrek antolatu baititu eguneko ekitaldi guztiak. Izan ere, Erronkariko Uskararen Egunak emango du ezagutzera Kebenko taldearen izena herritarren artean, hori baita jendaurrean elkarteak egiten duen lehenengo ekitaldia, orain dela hilabete egindako aurkezpenaren ondoren.

Hala ere, Kebenko lehenago jarri zen abian, orain dela sei bat hilabete eman baitzituzten taldeekideek elkarteak sortu eta haren ibilbideari hasiera emateko lehenengo urratsak. Orduz geroztik, helburuak zehaztu eta lehenengo asmo eta proiektuak prestatzeko egin dute lan Kebenko taldearen barnean bildu diren lagunek. Oraingoz 120 bazkide ditu elkarteak, Erronkariko bailarako herri guztietako jendea dago tartean.

«Bailarako hainbat lagun elkartzen hasi ginen ikusten genuelako euskararen alde zerbait egin beharra zegoela, euskara berreskuratzeko eta bultzatzeko», azaldu digu Kebenko taldeko kide Xabier Sarriasek. Iruindarra da jaiotzez, baina Izaban bizi da eta ederki daki euskarak han duen egoera: «Ez da hitz egiten. Batzuek badakigu, baina gure artean ez gara euskaraz mintzartzen. Erabat galduta dago euskara», azpimarratu du. Egoera horri buelta eman eta euskara bultzada sendoa ematea da Kebenko taldeko kideek hartu duten lana.

**Haurrentzako tailerrak eta gau-eskola** • Erronkariko euskara aspaldi galdu bazen ere, Erronkariko bailaran azken urteetan sortu dira herritar askoren itxaropena piztu duten hainbat ekimen. Iaztik, adibidez, Deredua badago Izabako ikaste-

txean herriko haurren gurasoek egindako lanari esker. Egundak, 20 neska-mutil ari dira D ereduan ikasten. Xabier Sarriasek ustez, «oso garrantzitsua da Erronkarin D eredua jarri izana, etorkizunari begira hor baitago itxaropena». Hori dela eta, haurrekin lan egitea da Kebenko taldeko kideen helburu nagusietarik bat, eskolatik kanpo ere euskaraz aritzeko aukera gehiago izan dezaten.

Haurrentzako lehenengo lana datorren hilabetean bertan egiten dute Kebenko elkarteak kideek. Xabier Sarriasek jakinarazi digunez, tailerrak antolatuko di-

tuzte, bailarako neska-mutlekin mendira joan, marraztu eta beselako hainbat ekitaldi egin ahal izateko. Tailerrak antolatu ahal izateko dirua lortzeko zozketa egiten dute biharko besta egunean, eta, halaber, Nafarroako Gobernuari ezezik, Erronkariko Juntari ere eskatu diote laguntza.

Xabier Sarriasek, bestalde, azpimarratu du urrian, ziurrenik, Erronkariko bailarak, Zaraitzukoarekin batera, euskara teknikaria izanen duela; haren ustez, Kebenko taldearen lanarekin batera, euskara teknikariaren fi-

gurak behar duen bultzada emanen baitio euskarari Erronkarin. Azaldu digunez, egindako lehenengo bozketan Zaraitzu eta Erronkariko udalek ezezkoa eman zioten euskara teknikaria ezartzeari bailaran. «Informazioa bildu eta udalekin egon ondoren, ordea, beste bozketak bat egitea lortu dugu, eta horretan baietza eman diote udalek euskara teknikaria ezartzeari».

Datorren urtera begira, bailaran gau-eskola jarri nahi du Kebenko taldeak. Duela bi urte jada gau-eskola abian jarri zen bailaran, baina azkenean bertan

behera gelditu zen, ikasleek pixkanaka utzi egin zutelako. Ekimen hura desagertuta, gaur egun Erronkariko bailaran euskara ikasteko aukerarik ez dagoela azpimarratu du Xabier Sarriasek, eta horregatik, haren ustez, «funtsezkoa da» gau-eskola berriro abian jartzea.

Erronkarin euskara berreskuratzea da, beraz, Kebenko taldearen helburua. Lana ez da nolana hainkoa, baina azken aldian sortu diren ekimenek argi erakusten dutenez, euskara mugitzen ari da ekialdean, bai eta Erronkarin ere.

## Bernardo Estornes Uskararen Egunean

KEBENKO taldearen eskutik Erronkariko Uskararen Eguna zabal eta bete ospatzeko aukera izanen dute bihar Erronkariko bailarako biztanleek Uztarrozen.

Ekitaldiak goizeko 10:00etan hasiko dira, gaitarien dianekin, eta ondoren, 11:00etan, Julian Gaiarre abesbatzak kontzertua emango du herriko elizan. Eguerdian, eguneko ekitaldi nagusietakoa egiten dute: Bernardo Estornes Lasak, Koldo Artolak eta Patxi Zabaletak Erronkariko euskararen iraganari, orainari eta geroari

buruz hitzaldia eskainiko dute.

Eguerdiko 13:00etan, berriz, pilota partidua jokatu dute Deskos eta Tapia izabarrek Bidankozeko Txemari eta Hualderen aurka. Ondoren, 15:00ak aldera, herri bazkaria egiten dute, eta bazkalostean plaka bana eman diete Bernardo Estornes eta Koldo Artolari, Erronkariko euskararen alde egindako lana eskertzeko asmoz. Viának Printzearen eta Hizkuntz Politikaren eskutik, hain zuzen, Bernardo Estornesen Gaztelera-Erronkariara hiztegiak

aurten ikusiko du argia, ziurrenik. Hiztegia Bernardo Estornesek bizitza osoan egindako lanaren emaitza bada ere, Koldo Artolak ere parte hartu du azken emaitzan, Artolak hartu baitu bere gain hiztegiak jasoko dituen 20.000 hitzak berrikusteko ardura.

Arratsalde parterako, halaber, hainbat ekitaldi prestatu dituzte Kebenko taldeko kideek. Arratsaldeko 18:00etan, adibidez, Zirko Ttipia antzerki konpainiaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen dute txikienek, eta 19:00etan, berriz, herri

kirolak izanen dira. Kirok ez ezik, musikak ere izanen du lekua biharko egitarauaren barruan. Arratsaldeko 20:30etan, hasteko, betiko euskal kantuak izanen dira, eta gauetz, gauerditik aurrera, Trikizio taldearen eskutik dantzaldia. Goizaldeko 02:00etan, berriz, Buitraker rock taldeak kontzertua eskainiko du. Ez da hori, hala ere, eguneko azken ekitaldia izanen, goizaldeko 04:00ak aldera Kebenko taldearen aldeko zozketa egiten baitute.

Erronkariko Uskararen Eguna lehen aldiz ospa-

tuko dute aurten, baina ez da azkena izanen. Hori espero dute, behintzat, Kebenko taldeko antolatzaileek, euren asmoa urtero bailarako herri batean ospatzea baita, «Erronkariko euskara bultzatu eta berreskuratzeko», aipatu du Xabier Sarriasek taldeekideak. Horregatik, bihar bailarako herritar guztien partehartzea ahalik eta handiena izan dadila nahi dute Kebenko elkarteak kideek, «bailarako biztanleon esku baitago Erronkarin euskara berreskuratzeko aukera». X

\* ◆Teresa del Valle ◆ Antropologoa

# «Emakumeok hiriaren beste irakurketa bat egin behar dugu»

s o s l a i a

Teresa del Valle antropologo donostiarra Euskal Herriko Unibertsitatean Antropologia Sozialeko katedraduna da, eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatean Antropologiako irakaslea. Antropologia feministan eta jenero azterketan hainbat ikerketa egin ditu, Euskal Herrian eta Ozeanian.

Korrikaren inguruan Hitzkuntzaren erritua-  
lak espazioan liburu-  
idatzi du, eta jendeak  
hitzkuntza ingurune-  
rekin nola uztartzen  
duen nabarmendu.  
Espazioa eta hirigin-  
tza jeneroarekin nola  
lotzen den aztertu du  
azken urteotan.

Espazioa ikertzean  
denborarekin topo  
egin eta denborak ko-  
lektibitatearen iraga-  
nean eta orainean  
duen garrantziari  
erreferatu dio. Bide  
horri jarraituz, me-  
moriak identitatearen  
sorreran duen gar-  
rantzia eta memoria  
hori sortzeko erritua-  
lak jorratzen dihardu.

**T**eresa del Valle antropologoa *Andamios para una nueva ciudad* (Hiri berrirako aldamiok) liburu aurkeztu du. Lurrean espazioak duen garrantzi sinbolikoaz eta gizartearen identifikazioak dakarrenaz oharturik, hirian espazioari ematen zaion zentzua eta hartzen dituen esanahiak aztertu ditu.

Irene Arrizurieta / Iruñea

DONOSTIA eta Bilboko hiriak aztertu baditu ere, beste hiri askotara egindako bisitekin osatu du liburu. Del Vallek gizarte sektore guztiek egituratutako hiri aldarrikatzen du.

■ *Andamios para una nueva ciudad* (Hiri berrirako aldamiok) liburu kaleratu berri duzu. Zeintzuk dira aldamiok horiek?

Almadioetaz mintzatzen naizenean hark eskaintzen duen ideia dinamiko eta eraldatzaileaz ari naiz. Egiten ari den eta aldi berean bizkar hezurra den zerbait. Hiri zerbait dinamiko bezala ikusi behar da. Historia bat duena eta kultura baten ondorio dena. Atzera begiratzean aldatzen joan dela antzematen dugun moduan, hirian bizi direnen beharretara eta irizpide berrietara egokitzuz aldatzen joan behar du hiriak. Hiri osotasun antza bezala ikusi behar da. Gehiengo eta bateragarria dela pentsatu beharrean, interesgarria den aniztasuna da. Liburuan hiri begiratu dut jeneroaren ikuspegitik. Kultura guztietan gizon-emakumeen arteko harremanak ez dira egonkorrak, baizik kultura eta egoeren arabera definitzen dira. Harreman horiek ezberdinak dira, eta espaziotik begiratzeak zer zentzu duen nabarmendu dut.



Teresa del Valle Iruñean aurkeztu zuen idatzi duen azken liburu.

JOXE LACALLE

■ **Iruñean berriki Emakumea eta Hiri jardunaldiak egin ziren. Han nabarmendu zenez, Mendebaldeko hirietan biztanleriaren erdia baino gehiago emakumeak diren arren, hiriok gizonen beharretara eginak eta egituratuak daudela diote ikerketek. Zergatik gertatzen da alde hori?**

Nik ez dut planteatzen gizona koentzatu edo emakume koentzatu hiri nola egituratu behar den. Emakumearen bazterketan eragina duten irizpideak eta ideologiak azpimarratzen ditut. Hirian erabakigarria den paradigma bat gertatzen da: ugalketa eta produktioaren arteko banaketa egiten da. Ugalketa etxekoari lotzen zaio eta produktioa etxetik kan-

pokoari, publikoari eta politikoa denari. Indarrean dagoen paradigma zein den ikusi behar da. Hirigintza politika egiten den erakundeetatik ikusten da etxekoa eta kanpoko banaketa daudela; errealitatean hori ez da horrela.

■ **Beraz, hiri batzuen ikuspegitik egituratzen da soilik?**

Kontzeptu eta banaketa ideologiko horrek eragina du hirian eta etxekoari ez zaio garrantzirik ematen, ez hortik ateratzeko eta sozializatzeko aukera eskaintzen. Haurren, zaharren eta gaixoen zainketa litzateke adibide bat. Ez da kanporatzen, beraz, ez zaio duen garrantzia onartzen. Era berean, naturalizazioaren boterea azpimarratu behar da. Espazio eta eginkizun jakin batzuei naturarekin lotuak dauden eginkizunak uztartzea. Etxekoarekin zerikusia duen guztiak emakumeari uztartzea, amatasunak definitzen gaituela esatea eta horrek finkatu egiten du dena, naturari lotutakoa mugiezina dela dirudielako. Prozesu horiek

antzeran eta urratu egin behar dira gauza puntualak sortzen dituztelako. Garrantzitsuena iturrietara joatea da. Horretan giza memoriak ere badu zeresana. Esaterako monumentuak eta kale-izendegia sexistak dira. Ez dute gizartearen izen aldaketarik islatu eta emakumeak kanpoan gaudela nabarmentzen da. Horri garrantzia handia eman diot horrela egiten delako giza memoria. Kale-izendegia izendatzeko era bat izateaz gain, hiri egitean pertsonen entitatea ematen zaie, kolektibitatearen oroitapenera eta hiriarren historiara iragan behar dutela esaten zaie.

■ **Emakumearena ezezik, hirian espazioa ikusteko beste joera batzuk ere nabarmentzen dira, okupen kasua, besteak beste.**

Hori oso interesgarria da. Egun indarrean dagoen paradigmatik apurketara garamatzen prozesu argirik ez dagoen arren, hainbat proposamen egiten ari diren taldeak daude. Talde bezala apurketa aurkeztu duten bakarrak

okupak dira eta interesgarria da oso horiek esaten dutena aintzat hartzea. Bizitza formak, produktioa eta ugalketa uztartzea, aisialdia egunerokotasunean sartzea proposatzen dute hiri handietan gertatzen ari den moduan merkantilizatu gabe eta eguneroko bizitzatik erabat aldentu gabe, ordu, egun eta sasio bazueta mugatuz. Gogoetarako bidea ireki dute.

■ **Nolakoa izan beharko luke etorkizuneko hiriak?**

Orain arte nola adierazi den ikusirik hiriaren alderdi humanoa oso garrantzitsua da, segurtasuna eta sarbideen aukerak hartu behar dira aintzat. Ez luke bazterketarik egon behar eta aniztasuna aberasgarria dela ohartarazi behar da. Gogoeta orokor bat egin eta hitza gizarte zibilak behar du. Hori islatu behar da, ekintza baten atzetik balore sistema bat dago. Hiriaren erakuntzan nagusitzen den filosofia ikusi behar da eta zein memoria bultzatzen ari den. x

«Etorkizuneko hirian garrantzitsua da oso alderdi humanoa. Aniztasuna aberasgarria dela ohartaraziz, aintzat hartu behar dira talde guztien proposamenak eta baloreak»

## BEKARIO!

Zaldi Eroa

